

## Zinegabonak ekimena film gehiagorekin, animazio tailerrekin eta areto berriekin itzuliko da

Abenduaren 26tik 29ra bitartean, Zinegabonak egitasmoa gauzatuko da gazteek eta familiek jaiegun horietan plan alternatiboaz gozatu ahal izateko euskarazko film eta animazio tailerrekin. Beste behin, Zineuskadik, EZA Erekin eta EITB rekin elkarlanean, txikien sormena suspertu eta pantaila handian eta euskaraz ikusten diren filmen aldeko apustua egin du. Oraingo honetan Euskal Herriko bost zinema - aretok eta Multibox-EiTBk hartuko dute parte.

Abenduaren 26an, osteguna, hasiko da Zinegabonak ekimenaren edizio berria. Lau egunez, 10 film proiektatu eta hiru tailer egingo dira Euskal Herriko hainbat udalerritan. Zineuskadik, EZA Erekin eta EITB rekin elkarlanean, antolatutako ekimena Multibox-EiTB aretoetan, Donostiako Principe zinemetan, Bilbo eta Iruñeko Golemen, Beasaingo Usurbe aretoan, Mungiako Olalden eta Urruñako Itsas-Mendi zineman burutuko da. Tailerren eta filmeen prezioa berbera izango da: saio bakoitzeko 1€-koa.

Oraingo honetan, tailerrak Takeshi Nagate eta Kazue Monno artista japoniarrek garatutako Pika-pika ('dir dir' euskaraz) teknikarekin burutuko dira. Partaideek argiaren bidezko marrazketa edo Light Painting izenez ezaguna denarekin gozatu ahal izango dute. Teknika hori, batez ere, Picassoren argazkien bitartez ezagutzera eman zen, linternarekin airean zezenak marrazten baitzituen, besteak beste. Euskarri digitalen zabalkuntzarekin batera hasi ziren erabiltzen prozedura hau animazio teknika bezala, paperean eginiko marrazketa linternaren argiarekin airean egindako diseinuengatik ordezkatuz. Tailerraren bukaeran, parte-hartzaileek sortutako obra proiektatuko da. Horregatik, beharrezkoa da sakelako telefonoak edo linternak eramatea.

### Programazioa

Gainerako egitarauari dagokionez, nabarmendu beharrekoa da familia osoarentzako filmak direla. Hala, adin ezberdinetako ikusleek aisialdiaz euskaraz gozatu ahal izango dute pelikula hauekin: *Maya Erlea 2: ezti jokoak* (Australia, 83'), *Harpetarra* (Erresuma Batua, 90'), *Zikoina* (USA, 87'), *Paddington* (Erresuma Batua, 95'), *Ploey* (Islandia, 83'), *Smallfoot* (USA, 96'), *Luis eta extralurtarrak* (Alemania, 86'), *Oin Handiren semea* (Belgika, 92'), *The Wish Fish* (Espainia, 71') eta *Aita, zontzia naiz* (España, 80').

Honako hau da tailerren eta filmen egutegia:

## **MULTIBOX ARETOAK – BILBO**

Osteguna, abenduak 26, 11:30 – *Zikoinak*

Ostirala, abenduak 27, 11:30 – *Harpetarra*

## **PRÍNCIPE ZINEMAK - DONOSTIA**

Ostirala, abenduak 27, 11:30 – *Animazio tailerra*

Larunbata, abenduak 28, 11:30 – *Paddington*

Igandea, abenduak 29, 11:30 – *Harpetarra*

## **OLALDE ZINEMAK - MUNGIA**

Osteguna, abenduak 26, 11:30 – *Animazio tailerra*

Larunbata, abenduak 28, 11:30 – *Ploey*

## **USURBE ZINEMAK - BEASAIN**

Osteguna, abenduak 26, 11:30 – *Animazio tailerra*

Larunbata, abenduak 28, 11:30 – *Smallfoot*

Igandea, abenduak 29, 11:30 – *Luis eta Extralurtarrak*

## **GOLEM ALHONDIGA – BILBO**

Larunbata, abenduak 28, 11:30 – *Maya Erlea 2: Ezti jokoak*

Igandea, abenduak 29, 11:30 – *Oin handiren semea*

## **GOLEM BAIONA – IRUÑEA**

Larunbata, abenduak 28, 11:30 – *Oin handiren semea*

Igandea, abenduak 29, 11:30 – *Maya Erlea 2: Ezti Jokoak*

## **ITSAS MENDI ZINEMA – URRUÑA**

Larunbata, abenduak 28, 11:30 – *The Wish Fish*

Igandea, abenduak 29, 11:30 – *Aita, zontzia naiz*

## **Informazio gehiago:**

Jara Ayucar

[komunikazioa@zineuskadi.eu](mailto:komunikazioa@zineuskadi.eu)

+34 636 80 62 21 [www.zineuskadi.eu](http://www.zineuskadi.eu)